



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2016KO AZAROAREN 11AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia**  
**Jesus Peñagarikano Labaka**  
**Miren Itziar Arratibel Imaz**

Etorri diren zinegotziak:  
Victoria Rodriguez Feloaga  
Eleuterio Sanchez Garcia

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2016ko azaroaren 11an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta Bitarteko Idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

### **LEHENA:**

#### **1.2016KO URRIAREN 28KO AKTAREN ONARPENA**

2016ko urriaren 28an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

BAKARRA: Onartzea 2016ko urriaren 28an eginiko Gobernu Batzarraren akta



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **2.- 2016 AZAROAREN 7AN BURUTURIKO INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEAREN IRIZPENEN ONARPENA**

#### **2.1 EGUBERRIETAKO ARGIEEN ALOKAIKUA. AURREKONTUA**

Ibarrako Udalak 2009 urtean kontsumo bajuko zenbait argi erosi zituen eguberrietarako. Azken urteotan, ordea, argi kopuru gutxiago jarri da herrian, eta Uzturpe Ikastolako ikasleek egindako apaingarri iraunkorrak jartzeko joera hartu du Udalak.

Iaz, merkataritza elkarteak argi gehiago jartzeko eskaera egin zion Ibarrako Udalari, herria triste geratzen zela argudiatuta. Eskaera horri erantzunez, aurtengo eguberrietan Euskal Herria kalea zertxobait gehiago argizatzea proposatu da, merkataritzaren gehiengoa kale horretan dagoenez: Euskal Herria 2, Euskal Herria 8, Euskal Herria 14, Euskal Herria 28, Euskal Herria 53, Euskal Herria 67, Idoiaga (anbulatorioaren altueran), San Inazio 1, San Inazio 5, Uzturre 3, Azkue 12, San Bartolome plaza eta eliza.

Kontuan hartuta Udalak Brigadaren pabilioian dituen argiak konpontzeke daudela eta jada ez duela astirik ematen, horretara jarduten duen Argirun enpresak esandakoaren arabera.

Kontuan hartuta, udal elektrizistarekin aztertutako aukeraren arabera, guztira 6m-ko hiru argi behar litzuzkeela Udalak Euskal Herria kalean jartzeko, urtero ezartzen diren gainerako argiekin batera.

Kontuan hartuta Argirun enpresak eguberrietako argiak ere alokatzen dituela, udal askoren aukera.

Kontuan hartuta Argirun enpresak alokatzen dituen argien artean ez dagoela 6 m-ko baina bi edo hiru motibo jarraian jarri daitezkeela neurri hori hartzera iristeko (ikus ingurumen teknikariari bidalitako argazkiak).

Kontuan hartuta motiboekin batera, bakoitzaren aurrekontua zein den aurkeztu duela:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

<b>MOTIBOA</b>	<b>EUROAK (BEZ barne)</b>
1x1-ko laburua	121
1x1-ko olentzeroa	121
2x2-ko laburua	211,75
2x2-ko olentzeroa	211,75
9 izarrak	278,3
6 izarrak	302,5
Trena	302,5
3 erregeak	278,3
2 kanpaiduna	278,3

Kontuan hartuta Ibarra Udalak 2.295,71 euro dituela 1.0000.226.431.00.06 2016 aurrekontu partidan, motibo ezberdinen konbinaketa egiteko aukera izanik 6m-ko luzera lortu arte.

Kontuan hartuta Udalak guztira 6m-ko luzeradun 3 argi alokatu behar dituela Euskal Herria kalean jartzeko.

2016ko azaroaren 7an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Alokatzera 6m-ko hiru argi Argirun enpresari, honoko konbinazioekin, guztira 1.948,1 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne:

<b>ARGIA</b>	<b>KONBINAKETA</b>	<b>EUROAK (BEZ barne)</b>
1	2x2 laburua + 2x2 olentzeroa + 2x2 laburua	635,25
2	9 izarrak + 2x2 olentzeroa + 9 izarrak	768,35
3	1x1 laburua + 6 izarrak + 1x1 laburua	544,5

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.226.431.00.06 2016 aurrekontu partidatik ordaintzea Argirunen faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman kontuhartzaitza sailari eta Argirune enpresari



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2.2 ARGITERI PUBLIKO. OTARREAGA KALEA**

Kontuan hartuta Ibarra Udala argiteri publikoaren kontsumoa murrizteko neurriak hartuz datorrela azken urteotan, 2008an Aranzadik eta Cademek egindako energia auditorian jasotzen diren ekintzei jarraiki.

Kontuan hartuta Otarreaga kalean guztira 14 argi daudela, argi kutsadura sortzeaz gain, energia kontsumo handia eragiten.

Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza teknikariak hiru aurrekontu eskatu ditu 14 argi horiek kontsumo bajuko argiengatik ordezkatzeko:

<b>ENPRESA</b>	<b>ARGI MOTA</b>	<b>EUROAK (BEZ barne)</b>
ALEVISAL	ELIUM LED	4.359,51
GOBESA	ELIUM LED	4.493,34
SETALDE	ELIUM LED	4.024,94

Kontuan hartuta hiru aurrekontuen artean Setalderena dela merkeena argi mota berarentzat.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak 2016ko Aurrekontu Orokorreko 1.0000.601.165.00.01 partidatik finantziatu dezakeela zenbateko hori.

2016ko azaroaren 7an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Setalderen aurrekontua onartzea, guztira 4.024,94 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzailtzak zenbateko hori 1.0000.601.165.00.01 2016 aurrekontu partidatik ordaintzea Setalderen faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzailtzari sailari, Setalderi, Alevisaleri eta Gobesari

## **2.3 KIROLDEGIAREN APARKALEKUA. ARGIZTAPENA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

2016ko urrian kiroldegiko parking egokitzeko lanak gauzatu dira Obra ta Zerbitzuak departamentuaren ardurapean.

Kontuan hartuta parkinga ilun geratzen dela, berau argiztatzeko bi argi jartzea proposatzen da, honoko aurrekontuak eskatuta:

<b>ENPRESA</b>	<b>ARGI MOTA</b>	<b>EUROAK (BEZ barne)</b>
ALEVISAL	ELIUM LED	979,86
GOBESA	ELIUM LED	1.009,96
SETALDE	ELIUM LED	904,60

Kontuan hartuta hiru aurrekontuen artean Setalderena dela merkeena argi mota berarentzat.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak 2016ko Aurrekontu Orokorreko 1.0000.601.165.00.01 partidatik finantziatu dezakeela zenbateko hori.

2016ko azaroaren 7an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Setalderen aurrekontua onartzea, guztira 904,60 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzailtzak zenbateko hori 1.0000.601.165.00.01 2016 aurrekontu partidatik ordaintzea Setalderen faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzailtzari sailari, Setalderi, Alevisalari eta Gobesari ematea.

## **2.4 DANON TXOKOAKO HAUR PARKEA. ARGIA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Kontuan hartuta Obra eta Zerbitzuak departamentutik Euskal Herria 8 kalean dagoen haur parkea berritzeko asmoa dagoela, egun egoera kaxkarrean aurkitzen baita.

Kontuan hartuta haur parke horretan argi gutxi dagoela, Euskal Herria 8 kaleko etxebizitzarekiko paretean Nebraska motako argi bat jartzea proposatzen da, horretarako, Setalderi aurrekontua eskatuta.

Kontuan hartuta Setaldek 344,12 euroko aurrekontua aurkeztu duela aipaturiko argiarengatik.

2016ko azaroaren 7an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Setalderen aurrekontua onartzea, guztira 344,12 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzailtzak zenbateko hori 1.0000.601.165.00.01 2016 aurrekontu partidatik ordaintzea Setalderen faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Kontuhartzailtza sailari eta Setalderi ematea.

### **2.5 DAMASORO TXERRITEGIRA DOAN HERRI BIDEAREN KONPONKETA**

Damasoro txerritegira doan bidea zuloz betea dago, bereziki bidearen amaieran, eta bertako jabeak berau txukuntzea eta konpontzea eskatu dio hitzez Udalari, kotxea izurratzen ari zaiola argudiatuta.

Kontuan hartuta herri bideen inbentarioan 32 zenbakiarekin jasota dagoen herri bidea dela.

Kontuan hartuta, aipaturiko bidearen erabiltzaile bakarra txerritegiko jabea den arren, berau konpontzeak lehen sektorea sendotzeko eta balioan jartzeko neurri konkretu bat suposatu dezakeela.

Kontuan hartuta Belarmendik 708,68 euroko aurrekontua, BEZ barne, aurkeztu duela bidean dauden zuloak "todo uno"rekin estaltzeko.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Kontuan hartuta udal brigadako langileek bidearen amaieran 12 m<sup>3</sup> hormigoi inguru bota dezaketela, Udalak 1.0000.210.170.00.00 2016 aurrekontu partidan duen zenbatekoa gainditu gabe.

2016ko azaroaren 7an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Belarmendiren aurrekontua onartzea, guztira 708,68 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Udal brigadak 12 m<sup>3</sup> hormigoi botatzea herri bidearen amaieran, 1.0000.210.170.00.00 2016 aurrekontu partidan dagoen zenbatekoa gainditzera iritsi gabe.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzailletza sailari eta Belarmendiri ematea.

### **2.6 EGUBERRIETAKO ARGIAK. HERRIKO PLAZAKO PINU MODUKO ARGIAK**

Urtero legez, Ibarra Udalak herriko plazan dauden farola nagusietako bat apaintzen du pinu moduko argi bilkari baten bitartez.

Kontuan hartuta Setaldek 125,78 euroko aurrekontua aurkeztu duela 45m-ko bilkari koloredunarengatik.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak 1.0000.601.165.00.01 2016 aurrekontu partidatik finantziatu dezakeela zenbateko hori.

2016ko azaroaren 7an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Setalderen aurrekontua onartzea, guztira 125,78 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzailletzak zenbateko hori 1.0000.601.165.00.01 2016 aurrekontu partidatik ordaintzea Setalderen faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzailletzari sailari eta Setalderi ematea.



IBARRAKO UDALA  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**HIRUGARRENA:**  
**3. GALDE-ERREGUAK**

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamaikak eta hogeita bost direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.